



bizkaiko garraio partzuergoa consorcio de transportes de bizkaia



BARIK NFC





AURKIBIDEA

- 1.- DESKRIBAPENA 1. ATALA
- 2.- DESKRIBAPENA 2. ATALA
- **3.- BARIK NFC APLIKAZIOA INSTALATU**
- 4.- BARIK NFC APP-A ERABILTZEN HASI
- **5.- TXARTELA IRAKURRI**
- **6.- KONTSULTEN PANTAILA**
- 7.- DIRU-TXARTELA > MUGIMENDUAK
- 8.- DIRU-TXARTELA > KARGATZEA
- 9.- HILEKOA > KARGATZEA
- **10**.- ORDAINKETA MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA. BGPk ez du bankuko daturik gordetzen
- 11.- ORDAINKETAREN BERRESPENA ETA TXARTELA GRABATZEA:
- 12.- TXARTELA GRABAKETAREN BERRESPENA ETA EROSKETAREN ORDAINAGIRIA





1.- DESKRIBAPENA

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren doaneko aplikazioa, NFC telefono edo beste gailu mugikorren bidez Barik txartelaren kontsulta eta birkarga egiteko. Nahi den guztietan, edozein titulu (diru-zorroak eta gainontzekoak), edozein ordutan (24/7), edozein kokapen geografikotik eta sare fisikoko puntuak (kutxazain automatikoak, salmenta puntuak, birkarga makinak) erabili behar izan gabe.

Zure mugikorrari guztiz egokitutako aplikazio honek bidea ematen dizu aukera hauek baliatzeko:

- Edozein Barik txartelaren edukia kontsultatu, telefonoari hurbilduz.
- Azken 30 mugimenduak kontsultatu.
- Txartel mota eta dagozkion datuak kontsultatu.
- Diru-zorroaren berehalako erosketa eta birkarga.
- Hileko tituluen berehalako erosketa eta birkarga.
- Metro eta Bizkaibuseko mapak kontsultatu.
- Ordainketa segurua kreditu/debitu txartelen bidez.
- Ordainketa segurua iupay-ren bitartez, ordaintzeko txartelaren datuak hainbatetan tekleatu gabe (ikusi www.iupay.es).
- Erosketa ordainagiria PDFn.
- Webean egindako erosketak Barik txartelean gauzatu.
- Erabiltzaileari abisatzeko mezua, operazioa ez baldin bada ondo burutu.





2.- DESKRIBAPENA

Ordainketak merkataritza seguruaren bidez babestuta daude, eta Kutxabank/Redsys ordainketa-plataforma erabiltzen dute.

Aplikazio hau erabiltzeko beharrezkoa da NFC teknologia eta Android 4.0 edo goragoko sistema eragilea duen terminal bat. Merkatuan dagoen terminal aukera handia dela eta, izan daiteke gailu bateraezinen bat eta, horretan, ezin da bermatu aplikazioaren portaera zuzena ziurtatzea.

Aplikazio mugikor hau 'den bezala' banatzen da. Beraz, CTBk ez du bere gain hartzen aplikazioa erabil edo instalatzearen ondorioz gerta daitekeen edozein kalte zuzen edo zeharkakoagatik.

Aplikazioak bi hizkuntza-aukera ditu: gaztelania (ES) edo euskara (EU).

Funtzionamenduari buruzko bideoa: <u>https://www.ctb.eus/sites/default/files/barik_2016_eusk.mp4</u> <u>https://www.youtube.com/watch?v=bLPsXfwl_Nc</u>





3.- BARIK NFC APLIKAZIOA INSTALATU







4.- BARIK NFC APP-A ERABILTZEN HASI



A.- **Detekzio automatikoa**: Jarri sakelako telefonoa Barik txartelaren gainean, eta app-a automatikoki jarriko da martxan. NFC irakurteko app gehiago baduzu, aukeratu Barik NFC App-a B.- **Eskuz hasi**: Sakatu Barik NFC App-aren ikonoa, eta Barik txartela hurbiltzeko eskatuko dizu.

Hasi irakurtzen:

NFC konexioa aktibatuta eduki behar duzu sakelako telefonoan.



Batzuetan wifi sare korporatiboek murriztuta dituzte BGPko zerbitzarietarako sarrera. Kasu hauetan 'datu mugikorrak' konexioa erabili behar da.





5.- TXARTELA IRAKURRI





Irakurri txarteleko datuak

Hurbildu sakelako telefonoa Barik txartelera Hobeto irakurtzeko, jarri txartela azalera lau baten gainean (metalikoa ez dena), eta gero jarri sakelako telefonoa gainean.

Jarri txartela sakelako telefonoko NFC antena dagoen tokiarekin parekatuta.

Ez mugitu txartela, harik eta irakurtzen amaitu arte eta pantailan datuak agertu arte.

Telefono txiki batzuetan arazoak egon daitezke txartelak irakurtzeko, NFC antenaren dimentsioengatik (4,5 hazbete baino gutxiagoko telefonoetan).





6.- KONTSULTEN PANTAILA





bizkaiko garraio partzuergoa consorcio de transportes de bizkaia

7.- DIRU-TXARTELA > MUGIMENDUAK

		N	FC "[], 🛜 📊 7	4% 🛑 11:45	
barik 19 cm		1001 8			
	Data	Operadorea	Zenbatekoa	Saldoa	
	04/10	NFC	5.0	24.21	
	03/18 11:50	TRA	-0.58	19.21	
	03/18 09:42	TRA	-0.58	19.79	
	03/17 14:42	TRA	-0.58	20.37	
	03/13 09:49	NFC	10.0	20.95	
	06/27 11:54		4.89	10.95	
	06/25 16:05	MB	0.0	6.06	
	06/25 15:54	MB	-0.82	6.06	
	06/25 13:29	MB	0.0	6.88	
	06/25 13:15	MB	-0.82	6.88	
06/23 10:11		MB	0.0	7.7	
	06/23 10:06	MB	-0.82	7.7	
	06/23				
🕼 ctb			honi buruz 2016		

■				
	1001 000250 819			
Data	Operadore/	Azalpena	2 enbatekoa	Saldoa
03/17 14:42	TRA	Validación Entrada	-0.58	20.37
03/13 09:49	NFC	Recarga o Venta de Título	10.0	20.95
06/27 11:54		Traspaso: Entrada Saldo	4.89	10.95
06/25 16:05	мв	Validación Salida	0.0	6.06
06/25 15:54	мв	Validación Entrada	-0.82	6.06
∕ ∩ ctb			h	oni buruz 2016

Hatza goitik behera irristatuz, pantaila aldatuko da eta mugimendu gehiago ikusiko dira.

Pantaila horizontalean jarriz gero (telefonoari bira emanez), zein eragiketa egin duzun ikusi ahal izango duzu.





8.- DIRU-TXARTELA > KARGATZEA



Aukeratu zenbat diru kargatu nahi duzun.

Barik BFC app-arekin gehienez 50 euro karga daitezke.

Barik txartelaren saldoa gehienez 90 eurokoa izan daiteke.





9.- HILEKOA > KARGATZEA



behar bada, eta saldoa nahikoa ez bada.





9.- HILEKOA > KARGATZEA > HANDITU MAPA



Operadorearen maparen gainean sakatuz gero handitu egingo da

Pantaila hauek horizontalean ikusten dira hobeto, zure sakelako telefonoak aukeratu hori aktibatuta badu.





10.- ORDAINKETA - MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA. (BGPk ez du bankuko daturik gordetzen)



Banketxearen plataformak ordaintzeko beste modu batzuk, berriak eta seguruak, onartzen ditu. (www.iupay.es)





10.- ORDAINKETA - MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA



Ordaindu sakatzen duzunean (4. urratsa), txartelaren jabea den banketxearen merkataritza elektroniko segurua izeneko pantailara igaroko zara.

5.- SMS bat jasoko duzu eragiketa baliozkotzeko kodearekin. Sartu kode hori dagokion tartean. Banku batzuk beste formaturen bat erabil dezakete.

6.- Baieztatu ordainketa.







11.- ORDAINKETAREN BERRESPENA ETA TXARTELA GRABATZEA



Aurreko eragiketa baieztatu ostean, mezua bat agertuko da, karga bukatu ahal izateko txartela berriz hurbiltzeko dioena.

Sakatzean berriz jarri beharko duzu sakelakoa txartelaren gainean, karga graba dadin.

Karga ondo egin dela dioen mezua agertuko da.

Urrats honetara iritsi bazara, baina karga ez bada ondo burutu, BGPko zerbitzarian gordeko da. Berriz ere irakurri txartela sakelakoarekin eta karga burutuko da. Aplikazioak sakelakora jakinarazpenak bidaliko dizkizu karga bat egiteke dagoela adierazteko.





consorcio de transportes de bizkaia

12.- TXARTELA GRABAKETAREN BERRESPENA ETA EROSKETAREN ORDAINAGIRIA



rik
aio Partzuergoa rcio de 5 de Bizkaia G48108203
Barik NFC
2 111 ada/Pertsonalizatuta DOA 2,38
12,30 RAUNGITA
keta
10,00 Eur CTB Barik NFC-59217521 001 2667 07/07/2015 10:44 Barik-1101056672111-Monederc 441668

B.D.A. eta 10% B.E.Z. barne

Txartela grabatu eta gero, karga ondo egin dela dioen mezua agertuko da.

Ordainagiria sakelako telefonoaren barruko memorian gorde behar da, hemen: storage/emulated/0/Download. Aplikazio hauetatik: galeria, argazkiak, fitxategien esploratzailea, beste batzuk...

Ordainagiria posta elektronikoz, whatsappez... bidali dezakezu.